


Egun on!

**UDALAK MAIATZAREN 27AN IREKIKO DU SOPELAKO ESTABLEZIMENDUAK "BONO DENDA SOPELA 2022" KANPAINARA ATXIKITZEKO ESKAERA EGITEKO EPEA.**

Kanpainan parte hartu nahi duzuen Sopelako merkataritza-jarduerarekin zerikusia duten merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduetan **MAIATZAREN 27TIK EKAINAREN 5ERA** bitarteko atxikimendua eskatu ahal izango duzue plataforma elektronikoaren bidez. Plataforma hori udalaren web orrian aurkituko duzue. Egin klik **HEMEN**.

Sopelako merkataritza- eta ekonomia-jarduera berreskuratzen laguntzeko, Udalak 4.100 bonu jarriko ditu zirkulazioan 2022ko ekainaren 15etik uztailaren 31ra, edo agortu arte.

“Bono Denda Sopela 2022” deskontu-bonua izango da, kanpainari atxikitako establezimenduetan erabiltzeko. Bonuaren bidez, 10 euroko deskontua lortuko da 20 euroko erosketa bakoitzeko.

Hiriko merkataritza-jarduerari lotutako establezimendu atxikiek eurek trukatuko dituzte bonuak, eta, horrela, deskontua lortuko da.

Establezimenduek eurek aplikatuko dituzte deskontu-bonuak, eta, horretarako, onuradunek, aurretik, NAN edo AIZ erakutsi beharko dute ondasunak erosi edo zerbitzuak eskuratzen dituztenean.

Pertsona bakoitzak, gehienez, hiru deskontu-bonu erabili ahal izango ditu; hau da, guztira, hogeita hamar euroko deskontua. Onuradun bakoitzak hainbat establezimendutan edo bakarrean erabili ahalko ditu deskontu-bonuak. Era berean, onuradunak erosketa bakarrean ala hainbatetan erabili ahal izango ditu deskontu-bonuak.

Sopelako Udalak 41.000 euro bideratuko ditu guztira, kontsumitzaileek jasoko dituzten deskontuak ordaintzeko.

Agur bero bat,

**Enplegu eta Ekonomia Sustapen Saila**
Tel.: 94 406 55 00 (luzapena 110)
Emaila: empleo@sopela.eus

Egun on!

**EL AYUNTAMIENTO ABRIRÁ EL 27 DE MAYO EL PLAZO PARA LA SOLICITUD DE LA ADHESIÓN DE LOS COMERCIOS DE SOPELA A LA CAMPAÑA “BONO DENDA SOPELA 2022”.**

Aquellos establecimientos comerciales y de servicios relacionados con la actividad comercial urbana de Sopela que estéis interesados/as en participar en la campaña, podréis solicitar la adhesión del **27 DE MAYO AL 5 DE JUNIO** a través de la plataforma electrónica, que encontraréis en la pág web municipal. Haz click AQUÍ.

Con el fin de contribuir a la recuperación de la actividad comercial y económica de Sopela, el Ayuntamiento pondrá en circulación a partir del 15 de junio hasta el 31 de julio de 2022, o hasta su agotamiento, un total de 4.100 bonos.

El “Bono Denda Sopela 2022” tendrá la consideración de bono-descuento en los establecimientos adheridos por un valor de 10 euros sobre una compra mínima de 20 euros.

El sistema de canje de bonos-descuento utilizado será el de bono canjeado por los propios establecimientos adheridos relacionados con la actividad comercial urbana.

La aplicación de los bonos-descuento será efectuada por los propios establecimientos tras la identificación mediante DNI o NIE de las personas beneficiarias en el momento de la adquisición de los bienes o prestación de servicios.

Cada persona podrá sumar un máximo de tres bonos-descuento por un valor de treinta euros. Dichos bonos-descuento podrán ser utilizados por cada persona beneficiaria en varios o en un único establecimiento. Asimismo, los bonos-descuento podrán ser utilizados por cada persona beneficiaria en una única compra o varias compras.

El Ayuntamiento de Sopela destinará un total de 41.000 euros, que sufragarán los descuentos de los que se beneficiarán las personas consumidoras.

Un saludo,

**Dpto. de Empleo y Promoción Económica**
Tel.: 94 406 55 00 (ext. 110)
Email: empleo@sopela.eus